



**Euskoa, tokiko moneta nola erabili azaltzen duen
KONTABILITATE-GIDA, profesionalei
zuzendutakoa**



eusko



Euskal Herriko tokiko moneta norbanakoentzat eta profesionalentzat da; billeteetan eta digitalki erabil daiteke. Eusko trukea Euskal Monetako kide direnen artean baino ezin da egin.

Profesionalek Euskoz kobratzeko bost modu dituzte:

- billeteekin.
- euskokartarekin, hornitutako ordainketa-terminalaren bidez.
- euskopayekin (QR kodea eskaneatu beharko du bezeroak).
- kontu batetik bestera egindako biramenduekin.
- diru-kentze automatikoekin.

A. Kide diren profesionalen administrazio, kontabilitate eta fiskalitate antolaketa

- > Fakturak eurotan egiten dira.
- > Fakturazioa berdina da, ordainketa-metodoa baino ez da egokitu behar euskoz ordaintzean.
- > Eusko kontu bat irekitzea kontabilitate-kontu osagarri bat (512) bezala irekitzea da.
- > Euskoz egiten diren operazioen informazio kontablea profesionalaren usaiako kontabilitatean integratzen da.
- > Euskoaren erabilerak ez du eraginik merkataritza-zergen aplikazioan (BEZa, sozietateen gaineko zerga), eurotan erregistratzen baitira.

Salmenta-fakturaren aukezpena

Saltzailearen izena eta datuak	Eroslearen izena eta datuak
Faktura zenbakia: Data:	
FAKTURA	
Produktu edo zerbitzuen deskribapena	
Guztira BEZ gabe	1000€
BEZ-a	200€
Guztira BEZ barne	1200€
<u>Ordaintzeko metodoa</u>	
Euroz ordaindua: 800 euros	
Euskoz ordaindua: 400 eusko	

Salmenta-kontuen 70. kreditua
Bildutako BEZ kontuaren 4457. kreditua
Bezero-konturaen 41. zorra
Bezero-kontuaren kreditua, 512. banku-liburuaren zorraren bidez
Bezero-kontuaren kreditua, Eusko diruzaitzaren 512. libururaren zorraren bidez

Erosketa-fakturaren aurkezpena

Saltzailearen izena eta datuak	Eroslearen izena eta datuak
Faktura zenbakia: Data:	
FAKTURA	
Produktu edo zerbitzuen deskribapena	
Guztira BEZ gabe	1000€
BEZ-a	200€
Guztira BEZ barne	1200€
<u>Ordaintzeko metodoa</u>	
_Euroz ordaindua: 800 euros	
Euskoz ordaindua: 400 eusko	

Erosketa-kontuen 60. zorra
Bildutako BEZ kontuaren 4456. zorra

Hornitzaile-kontuaren 40. kreditua

Hornitzaile-kontuaren zorra, 512.
banku-liburuaren kredituz

Hornitzaile-kontuaren zorra, Eusko
diruzaintzaren 512. liburuaren kredituz

B. Kutxa erregistratzaileekin egiten diren operazioen grabaketarri aplikatzen den eskema.

Kutxa erregistratzaileak modu berean funtzionatzen du, ordainketa-metodo osagarri bat baino ez da sartu behar (kreditu-txartela, txekea edo bazkari-bonua bezala).

Adibidea:

<u>A kategoriako salmenta</u>	250,00
<u>B kategoriako salmenta</u>	600,00
<u>C kategoriako salmenta</u>	855,25
<u>Guztira:</u>	1 705,25

Eskudirua €	700,00
Txartela	550,00
Bazkari-bonuak	300,00
Eusko billeteak	50,00
Eusko digitalak	105,25
<u>Guztira:</u>	1 705,25

Eguneko salmenten laburpen kontablea

		Salmenta	Kreditua
580100	Bezeroak eskudirua	700	
580200	Bezeroak txartela	550	
580300	Bezeroak	300	
580400	Bezeroak eusko eskudirua	50	
580500	Bezeroak eusko digitalak	105,25	
707000	Salmentak		1421,04
445700	BEZ kopurua		284,21



Digitalarentzat hurrengo zehaztasunak gehitu beharko dira eusko-kontabilitatean:

		Salmenta	Kreditua
512000	Eusko digitalak	105,25	
580500	Bezeroak eusko digitalak		105,25

C. Soldaten zati bat euskoz ordaintzea

Profesionalak langileen soldataren zati bat tokiko monetan ordaindu dezake honen aldez aurreko baimenarekin; ez du eraginik izango lansari agirian. Langileari dagokion zenbateko osoa bi zatitan banatuko da: bata euro transferentzia bidez ordaindutakoa eta bestea eusko transferentzia bidez.

Hilabete sariaren idazketa konduetan

		Salmenta	Kreditua
640000	Soldata gordina	1800	
421000	Lansaria		360
431000	Erakunde sozialak		1440

Eurotako biramendua baita euskotakoa ere 421. kontuaren zorran sartzekoak dira balantzagatik.